



2022-2024

2021eko urria

Tolosako Euskararen Aholku Kontseilua



## **AURKIBIDEA**

SARRERA	<b>4</b>
XEDEA	<b>6</b>
HELBURUAK	<b>7</b>
HERRIKO EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA	<b>7</b>
2015-2019ko ESEParen EBALUAZIOA	<b>14</b>
ESEP 2022-2024	<b>24</b>
EKINTZEN KRONOGRAMA	<b>30</b>

## SARRERA

Tolosako Euskara Sustatzeko lehenengo Ekintza Plana (ESEP) 2015ean onartu zen eta ordura arteko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) ordeztu zuen. 2015eko ESEPa 2019an amaitu zen eta ordutik beratu eguneratzeko hainbat ahalegin egin dira Euskara Batzordean.

Bitarte horretan, 2020ko azaroan, 25 urte baino gehiagoko ibilbidea izan duen Euskara Batzordea eguneratzeko proposamena heldu zen, eta Euskara Sailak Tolosako Euskararen Aholku Kontseilua (EAK) osatzeko erregelamendu proposamenari ekin zion.

EAK sortzeko arrazoia Euskara Batzordearen izaera arautzeko beharra izan da, bereziki, administrazioaren eta gizarte eragile guztien artean hizkuntza politika partekatua bultzatzeko asmoz.

ESEP udalerriko euskara plana da, herritarrek eta udalak euskara indartzeko daukaten lanabesa. Adostasuna eta lankidetzak dira ESEPen zimenduak, eta horregatik, Euskararen Aholku Kontseilua izan da Tolosako Euskara Sustatzeko Ekintza Plan berria diseinatzeko bilgunerik aproposena; adostasuna eta lankidetzak badirelako ere Kontseiluaren berezko oinarria.

2021eko maiatzaren 12an EAK-k erabaki zuen 2015eko planaren balorazioa Kontseiluan bertan egitea, eta horren arabera, plan berria diseinatzea. Horretarako, hurrengo bileretan hainbat saio monografiko egin izan dira (aurreko planaren balorazioa, balorazioaren kontrastea, plan berrirako proposamenak, proposamenen kontrastea, planaren zirriborroaren kontrastea...).



Euskararen Aholku kontseilua honako kide hauek osatzen dugu: Tolosako Udaleko Euskara Saila, Aitzol Euskaltegia, Udal ordezkari politikoak (EAJ, PSE-EE eta EH Bildu), Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA), Samaniego ikastetxea, Laskorain ikastola, Herrikide ikastetxea, Inmakulada lanbide eskola, Orixe BHI, Tolosaldeko Ataria, Harituz Bertsozale Elkargunea, Osakidetzako Tolosaldeko ESiko euskara teknikaria eta Galtzaundi Euskara Taldea.



Beraz, dokumentu hau honako eragile hauen proposamena da:



## XEDEA

Plan honen helburu nagusia euskararen erabilera eta euskal kultura sendotu eta zabaltzea da; baita horretarako datozen 3 urteetan landuko diren esparruak eta neurriak zehaztea ere.

2021	2022	2023	2024
<h1>PLAN ESTRATEGIKOA</h1> <p>Landu beharreko esparruak eta neurriak</p>			
AURREKO PLANAREN EBALUAZIOA DISEINUA	KUDEAKETA PLANA Ekintzak EBALUAZIOA	KUDEAKETA PLANA Ekintzak EBALUAZIOA	KUDEAKETA PLANA Ekintzak EBALUAZIOA




## HELBURUAK

Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren helburu nagusia euskararen erabilerari begirakoa izango da, baina erabilerarekin batera, estrategiak, jabeakuntzak eta elikadurak osatzen dute helburuen atala.

PLAN ESTRATEGIKOA	EUSKARAREN JABEKUNTZA	EUSKARAREN ERABILERA	EUSKARAREN ELIKADURA
Efikazia Efizientzia Koherentzia Irekitasuna Elkarlana Osotasuna ...	Familia transmisioa Irakaskuntza Euskalduntzea Alfabetatzea	Administrazioa Arlo sozio-ekonomikoa Aisia Kirola Erabilera neurketak	Liburugintza Kulturgintza Corpus/Kalitatea Hedabideak IKTak

## HERRIKO EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA



Iturria: Eustat.

Azken datuen arabera, Tolosak 19.892 biztanle ditu (2021eko urtarrilaren 1ari dagokio datu hori, udal erroldaren estatistikari).

Hizkuntzari lotuta Eustatek jasotako datu berrienak, berriz, 2016koak dira. Beraz, hemen jasotako erreferentziak orain dela 5 urtekoak dira, kale neurketari dagozkion datuak izan ezik.


2016an 19.041 biztanle zeuden Tolosan, % 70,94 euskalduna eta % 10,89 ia euskalduna; beraz, azken datuen arabera, tolosarren % 81,83k euskara ulertzen du.

Erabilera Planak arautzen dituen 86/1997 Dekretuan ezarritako euskara indizearen arabera (euskaldunak eta ia euskaldunen erdiak batuta lortzen da indize hori), Tolosa hirugarren gune soziolinguistikoko herria da, % 76,4ko portzentajea dauka

eta. UEMA Udaleri Euskaldunen Mankomunitateko kidea da; horretarako ezagutza baldintzak betetzen ditu.


## LEHEN HIZKUNTZA

Euskararen erabilerari begira, badu garrantzia lehen hizkuntzak: hiztunak etxean jasotako hizkuntza da. Tolosako egoerari dagokionez, herritarren erdiek euskara dute lehen hizkuntza (% 50), baina kontuan izatekoa da aurreko estatistikekin alderatuta, jaisten ari dela portzentaje hori. Hazten ari da euskara eta gaztelania aldi berean jaso dituztenen portzentajea (% 10), baita gaztelania ez den beste erdara bat jaso dutenena ere (% 4).



Iturria: Eustat, Siadecok landua.

## ETXEKO ERABILERA



Iturria: Eustat, Siadecok landua.



Biztanleriaren eta etxebizitzaren inkestan jasotako datuen arabera:

- Tolosako etxeetan, euskararen eta gaztelaniaren erabilera paretsu daude: % 40 euskaraz, % 39 gaztelaniaz.
- Bi hizkuntzetan aritzen direla adierazi du ia bostetik batek.
- Gaztelania ez den beste erdara batean jarduten dutenak oso gutxi dira oraindik (% 3), baina gorakada nabari da.


Etxeko erabilera eta ezagutza datuen arabera:

- Etxean euskaraz egiten du erdiak baino gehiagok (% 56).
- Etxean euskaraz eta erdaraz egiten dutenen ehunekoa, berriz, % 26 da.

Etxeko erabilera eta adina datuen arabera:


- Adin talderik euskaldunenetan (ume eta gazte), handiagoa da ezagutzaren eta erabileraren arteko diferentzia.
- Adinekoetan, hiru euskaldunetik bik egiten dute etxean euskaraz.
- 34 urtetik beherako adin taldeetan erdiak egiten du etxean euskaraz.

## KALE ERABILERA



1985etik urtero hartu izan dira Tolosako kaleetako hizkuntza erabilerari buruzko datuak. Lehen urteetan, Tolosako Udalak eta Siadecok zuten horren ardura; azken urteetan, aldiz, Galtzaundi Euskara Taldearen ardura da, Tolosako Udalaren enkarguz.


Tolosako Kale Erabileraren Neurketan jasotako datuek diotenez, Tolosan elkarriketen % 49 euskaraz izan dira.



Tolosan kale erabileraren neurketak egiten direnetik, orain arte erregistratutako daturik altuena da 2020koa, 2019koarekin batera. Bigarren aldiz, eta gainera bigarren urtez jarraian, kale erabileraren neurketan euskara gehiago entzun da gaztelania baino.

2020ko datuetan, aurreko urteetan bezala, adinean gazteenak direnak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, eta adinean zenbat eta gorago joan, orduan eta txikiagoa da erabilera: haurren erabilera % 70ekoa izan da; gazteena % 61ekoa; heldu-gazteena % 60koa; heldu nagusia % 42koa, eta adinekoena % 33koa. Bilakaera horretan, azpimarratzekoa da 35 urtetik gorako eta beherako artean dagoen aldea.

Haurren presentzia aztertuta ikusten da haurrek, elkarren artean, % 72ko euskara-erabilera erregistratu dutela; nagusiek elkarren artean, berriz, % 39koa. Haurrek zertxobait euskara gehiago erabiltzen dute nagusiekin, beraien artean baino.



Haurren eta nagusien arteko elkarrizketetan, % 73 dira euskaraz, eta haurra hitz egiten entzun den elkarrizketen % 64 dira euskaraz.



Tolosan, azken 35 urteetan, erabilerak 20 puntu egin ditu gora, nahiz eta igoerarik handiena lehen urteetan nabaritu zen. Aurtengo euskararen erabilera 1985etik erregistratutako altuena da.

Belaunaldien artean aldaketa gertatu da:

- Gazteak erabileran eta ezagutzan azkena izatetik bigarren izatera pasatu dira.
- Haurren erabilerak igoera handia izan zuen lehen urteetan, eta azken urteetan, ia ez da igo.
- Helduek betiko hazkunde erritmoan jarraitzen dute.

- Adinekoetan, aldiz, beherakadak geldialdia izan du azken bosturtekoan.

Haurren presentziak eragina dauka: helduen euskara erabilera ia bikoiztu egiten da haurrekin ari direnean, helduen arteko elkarriketekin alderatuta.



## **TOLOSAKO GURASO EUSKALDUNEN HIZKUNTZA OHITURAK**

2019an, herriko guraso euskaldunen hizkuntza ohiturak aztertu zituen Siadeco Ikerketa Elkartek, Udalaren enkarguz. Hemen jaso ditugu ikerketaren ondorio esanguratsu batzuk:

### **ERABILERA**

- Bi hizkuntzetan aritzeko joerak gora egin du.
- Hurrekin hizkuntza bat eta bikotean beste bat erabiltzeko joera dago.
- Guraso euskaldunen artean, behera egin du euskararen erabilerak.
- Etxean eta kuadrillan, gora egin du euskararen erabilerak.
- Gehienen kasuan, lantokian gora egin du euskararen erabilerak.

### **TRANSMISIOA**


- Guraso euskaldun guztiek haur euskaldunak dituzte.
- Etxean hurrekin euskaraz egiteko joera % 90ekoa da.
- Ama euskalduna duten umeak euskaraz errazago aritzen dira.
- Aita euskalduna duten umeek erdaraz aritzeko joera handiagoa dute.
- Euskara da transmititutako lehen hizkuntza.

### **KONTSUMOA**

- Marrazki bizidunak ingelesez ikusteko joera zabaltzen ari da.
- Gurasoek gutxi kontsumitzen dituzte eskualdeko hedabideak.
- Interneten, % 10ekoa da euskarazko hedabideen kontsumoa.
- Gurasoen % 40k beti euskaraz entzuten du irratia.
- Gurasoen % 1,3k egunero euskaraz kontsumitzen du telebista.
- Liburuen kontsumoa oso txikia da.
- Musika euskaraz eta gazteleraz entzuten dute.
- Ikus-entzunezko edukiak gazteleraz kontsumitzen dituzte.
- Kultura: ohitura falta, eskaintzaren ezagutza falta, denbora falta eta saiakera falta dago.

### 50. Grafikoa

Euskararen erabilera areagotzeko zer behar den (%)



Iturria: Siadeco.

## 2015-2019ko ESEParenten EBALUAZIOA

Esan bezala, Euskararen Aholku Kontseiluak 2021eko maiatzean eginiko bileran ESEP 2015-2019aren ebaluazioa egin zen.

### PARTE HARTZAILEAK

---

- UDAL ORDEZKARIAK: Xabier Balerdi EAKren lehendakaria, Jose M<sup>a</sup> Villanueba PSE-EEko ordezkaria eta Garbiñe Marzol EH Bilduko ordezkaria.
- UDAL LANGILEAK: Ziortza Sanz euskara zerbitziburua, Jexux Peñagarikano euskara normalizatzailea, Maixabel Zubillaga udal euskaltegiko zuzendaria eta Bakarne Telleria Euskara Zerbitzuko administraria.
- ERAGILEAK: Galtzaundi Euskara Taldea, Tolosaldeko Ataria, Laskorain ikastola, Samaniego ikastetxea, Herrikide ikastetxea, Inmakulada lanbide eskola eta UEMA.

Bileran, 2015ean diseinatutako ESEP planaren helburuak eta ekintzak aztertu ziren, honako atal hauen arabera:



- ZER ZUZENDU?
- ZERI AURRE EGIN?
- ZERI EUTSI?
- ZER SUSTATU?

Hurrengo taula honetan daude bileran jasotako gaikako indarguneak, aukerak, mehatxuak eta ahulguneak:

HELBURUAK	ESPARRUA	INDARGUNEAK AUKERAK	AHULEZIAK MEHATXUAK
<b>ESTRATEGIA</b>	Plan Estrategikoaren Efikazia Efizientzia Koherentzia Irekitasuna Elkarlana Osotasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herriko euskalgintza diruz laguntzeko hitzarmenak.</li> <li>• ESEP plangintzaren balorazioa abiatu da.</li> <li>• Euskara Batzordea hilean behin bildu da (salbu: 2020ko urte erdiko geldialdia).</li> <li>• Tolosaldeko euskara teknikarien koordinazio lana egin da: Mintzalaguna, Errenta Aitorpena, Euskaraldia, Euskararen egunen koordinazioak...</li> <li>• Kale neurketen ondorioak gizarteratu dira eta batzordeari aurkeztu zaizkio.</li> <li>• Euskararen Eguna indartzeko urratsak egin dira.</li> <li>• Galtzaundik Tolosaldeko datu soziolinguistikoak jaso, ordenatu eta gizarteratu ditu.</li> <li>• Euskara Sailaren zerbitzua ostalari/saltokietan zabaltzeko lana.</li> <li>• Eragileen arteko elkarlana; bai Euskara Batzordeko kideen artean, baita Tolosaldeko udaletako Euskara Sailen artean ere.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• ESEP plangintzan elkarlan falta.</li> <li>• Ez da egin Euskara Sailaren koordinazio-bilerarik.</li> <li>• Ez da koordinazio-lanik egin Galtzaundi/Tolosaldeko euskara hedabideen eta Udalaren artean.</li> <li>• Ez dira egin ESEPi urtez urte egin beharreko jarraipenak.</li> <li>• Ez dira gazteentzako erreferente euskaldunak bultzatu.</li> <li>• Ez da egin euskara normalizatzeko ekitaldiak ezagutarazteko ekintzarik.</li> <li>• Ez da egin euskara eragileen prestakuntzarik.</li> <li>• Euskararen Kontseiluarekin elkarlana sustatzeko borondatea bai, baina jarraipenik ez du izan.</li> <li>• Euskara Sailaren egonkortasun falta eta Euskara Batzordearen dinamizazio falta.</li> <li>• Gabeziak eragileen arteko koordinazioan, lanen uztarketan...</li> <li>• Barruko lanen eta kanpoko lanen bereizketa (erabilera plana eta herrira begirako plana).</li> </ul>

<b>EUSKARAREN JABEKUNTZA</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastetxeen arteko foroak.</li> <li>• Herritik kanpoko euskalgintzako erakundeak diruz laguntzea: Kontseilua, Behatokia...</li> <li>• Kaleko erabileraren neurketa.</li> <li>• Gazteentzako erreferente euskaldunak bultzatzeko ahalegina.</li> <li>• Bistara atera behar dena: Tolosako guraso euskaldunen hizkuntza ohiturak (2019ko martxoa).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Baliabideen optimizazioa.</li> <li>• Euskara Sailean izandako aldaketak.</li> <li>• Ez da izan Euskararen Eguna indartzeko baliabide askorik.</li> <li>• Urteko hitzarmenak sinatu behar izateak eragileen jardunaren iraunkortasuna zailtzen du.</li> <li>• Euskara Sailean egon(go) diren aldaketak.</li> <li>• Udaleko plantillan izandako aldaketek (idazkaritza eta kontuhartzaitza) eragina izan dute prozeduran.</li> <li>• Plan estrategikoa ez dago behar bezala blindatuta. Norbanakoen jarrerak eragin handia du.</li> </ul>
	Familia bidezko Transmisioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Guraso eusleak (2017/18), gurasoek ikasteko matrikulazio kanpainak, Euskaraldia.</li> <li>• Euskarazko produktuen katalogoa banatzen da.</li> <li>• Ikastetxeekin egiten den elkarlana (Hezkuntzako sektore mahaiaren bidez, Hedatu proiektuarekin...).</li> <li>• Ikastetxeekin egiten den elkarlanaren bidez, gurasoekin lanketak sustatu dira (HEDATU).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arlo honetan ez da lanketa berezirik egin.</li> <li>• Sentiberatze materialik ez.</li> <li>• Ez da banatzen UEMAk jaioberriei lotuta abiarazitako "Kontuz haurrak" kanpaina.</li> <li>• Ez da egin guraso/begiraleentzako ikastarorik.</li> <li>• Ez da bideratu umeentzako jolas eta kanten DVDa.</li> <li>• Jada ez da banatzen haurdunentzako liburu/DVDa.</li> <li>• Udalak eskura dituen baliabideen aprobetxamendua eta horien sustapena ez</li> </ul>



			<p>da sistematizatzen.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hainbat aldagai tartean: familia etorri berrien gorakada, kultur kontsumo ohituretan aldaketak...</li> <li>• Eskolaz kanpoko aisialdiaren eraginari aurre egin beharra (eskolaz kanpoko jarduerak, kirol elkarteak...).</li> </ul>
	Irakaskuntza	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazteak motibatzeko ekimenak bideratzeko Galtzaundik egin duen lana.</li> <li>• "Gu ere Bertsotan" egitasmoa.</li> <li>• Etorkinentzako errefortzuak antolatzeke udal laguntza badago.</li> <li>• Euskararen lan mahaia dinamizatu da eta emaitzak izan dira: Guraso eusleak, gurasoen matrikulazio kanpaina. Ikasleen ekimen parte hartzaileak, Euskaraldia, Hedatuz.</li> <li>• LHn "Ahozkotasuna eta bertsolaritza" egiten da.</li> <li>• Ikasleen Batzordea dinamizatu du Galtzaundik: Hitzartzeak (2016, 2018, 2019), mural/argazki/bideo ikastaroak (2016, 2017, 2018), kale erabileraren landa lana urtero, kontsumo ohituren azterketa, UEMAren ahalduntze programa, Garabideren bideo emanaldia (2019).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lan mahaian ez da Tolosako Euskara Saileko ordezkariarik egon 2017az geroztik.</li> <li>• DBHn "Ahozko lantegia" geldirik dago.</li> <li>• Etorkinentzako errefortzuetarako laguntza motz geratzen da; ikasleen kopuruaren arabera banatu beharko litzateke.</li> <li>• Euskarazko irakaskuntzan aritzen diren eragileen arteko koordinazioa falta da.</li> <li>• Euskara errefortzuak ez dira egin.</li> <li>• Euskara errefortzuetarako eskaera dagoen arren, ez zaie ezer eskaintzen.</li> <li>• Hainbat aldagai tartean: gazteen artean nagusitasun handia du erdarak kultur kontsumo ohituretan, ikasle etorri berrien kopuruaren gorakada...</li> <li>• Covidaren eraginez, Udalak ez du bertso eskola saioak egiteko lokala utzi, eta horrek zailtasunak ekarri ditu.</li> </ul>

		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Autoeskoletan euskaraz (UEMA)</li> <li>• Ahozkotasuna eta Bertsolaritza GBEk eta Harituzek alor guztietan lantzen dute.</li> <li>• Harituzen bertso saio parte hartzaileak 200 haurrengana heldu dira.</li> <li>• Euskara errefortzu zerbitzuari eta ahozkotasuna lantzeko egitasmoei eutsi zaie.</li> <li>• Ikasleak ahalduntzeko eta eskoletan soziolinguistika gaiak lantzeko Hedatu proiektuaren lanketa.</li> <li>• Dirulaguntzak: Korrika, KMK, Herri Urrats eta Nafarroa Oinez.</li> </ul>	
	Euskalduntze- Alfabetatzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Matrikulazio kanpaina bateratua.</li> <li>• Ikasleentzako dirulaguntza.</li> <li>• 2019an Euskalduntze-Alfabetatze Mahaiaren sustapena sortu zen.</li> <li>• Peñascal-Aitzol Aisa ikastaroa.</li> <li>• Banaiz Bagara Euskara Plus ekimena.</li> <li>• Merkatarientzako euskalduntze eskolak (2015-16).</li> <li>• Mintzalagun taldeetan 60 partaide urtero, EHko ekintza bateratuak antolatu dira / parte hartu da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskaltegiko hasierako mailetan hainbat etorkin daude, baina ez da aukera hori harrerarako baliatzen.</li> <li>• Euskaldun berriaren zubia izendatu zen, baina 2017tik ez da alfabetatu/euskaldundutakoen sustapen berezirik egin.</li> <li>• Banaiz Bagara Euskara Plus ekimenak 2018az geroztik ez.</li> <li>• Merkatarien mintzalagun taldeak, euskalduntze eskolak... iraunkortasunik ez, lan egoera eta ordutegiak direla eta.</li> <li>• Euskaltegiko itxaron zerrendari erantzunik ez.</li> <li>• Aitzol Udal Euskaltegia Tolosakoa al da, edo</li> </ul>

		<ul style="list-style-type: none"> <li>• “Auzoko” programa erronka handia, 2015ean baino ez zen egin.</li> <li>• Sektoreko mahaia.</li> <li>• Etorrintzako harrera gida bideratzeko premiazkoa da neurriak-eta bideratzea.</li> <li>• Lan mundurako sarbide diren ikastetxeak / euskaltegiak.</li> <li>• Bizilagun berrientzako harrera. Bizilagun berrientzako UEMAK sortutako harrera protokoloa Udalaren eskuetan dago. Protokoloa egokitu eta sistematizatzeko urratsak ematea falta da.</li> <li>• Etorri berriekin lanean ari diren elkarteekin kolaborazioa, euskara zeharkakotasunez lantzea...</li> </ul>	<p>Tolosaldekoa?</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskalduntzean doakotasuna bermatzeko zailtasunak.</li> <li>• Euskara ikasteko premia berriei aurre egin behar zaie (ikastaro laburragoak, ordutegi malgutasuna, autoikaskuntza eta klase presentzialak uztartzea...).</li> </ul>
<p><b>EUSKARAREN ERABILERA</b></p>	<p>Arlo sozio-ekonomikoa</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udal dirulaguntzak (errotuluak, enpresa planak).</li> <li>• Galtzaundik UEMArekin elkarlanean garatzen duen Merkataritza programa.</li> <li>• Udalak Tolosa&amp;Co-rekin daukan hitzarmena.</li> <li>• Euskara Sailak itzulpen zerbitzua eskaintzen die merkatariei.</li> <li>• Galtzaundik eta UEMAK elkarlanean garatzen dute merkataritzako hizkuntza paisaia lantzeko egitasmoa. Saltoki</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tolosaldeko herriein batera eta Galtzaundi zein Kontseiluarekin batera, Tolosaldeko plangintza egin eta abian jartzeko hurbilketa egin zen 2015ean, baina bitarteko faltagatik ez da aurrerapausorik egin.</li> <li>• Enpresa munduan eragiteko estrategia orokor baten falta.</li> <li>• Enpresetan euskara planak garatzeko eta errotuluak euskaraz jartzeko eskaera gutxi izan dira azken urteetan.</li> <li>• Establezimendu handiak eta kateak.</li> </ul>

txikietan emaitza esanguratsuak.

- Lanbide Eskolako Mahaia.
- "Lan praktikak euskaraz" (2018/2019).
- Establezimenduetarako materialak sortzeko ekimen puntualak (Euskaraldia).
- Euskararen erabilera indartzeko gida eta arlokako hiztegiak
- UEMAREN merkealdi kanpainetarako materiala.
- Merkataritza arlo guztietan itzulpen zerbitzua eskaintzen da.
- Merkataritza zerbitzuan eragileen artean egiten den elkarlana.
- Saltoki handietako paisaia euskalduntzeko/erabilera areagotzeko plangintza.
- Bertako merkatariei baliabideak eskaintzen jarraitu, eta establezimendu handiekin barne-lanketak abiatu.
- Euskararen balio erantsia duten ekimenak eskualdeko izaerari lotuta daude.
- Lanbide Heziketako eta institutuetako ikasleen formazioa euskaraz egin, eta lan-munduan gazteleraz aritu beharra.
- Lan praktikak euskaraz egiteko

- Inmakuladako ikasleak kanpokoak dira, eta adineko jendea zaintzen hasten direnean, ez dakite euskaraz.

		<p>sustapena.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Hizkuntzaren ezagutza bermatzeko, Inmakuladako ikastaroetan AISA moduluren bat jartzea izango litzateke aukera bat, baina zaila da ikastaroan hori txertatzea, daukaten ordu kopuruarekin.</li> </ul>	
	Aisia eta kirola	<ul style="list-style-type: none"> <li>Arlo honen estrategikotasuna.</li> <li>Kirol klubentzako entrenamenduetako euskara normalizatzeko konpromisoen lanketa eta diagnostikoa (2018).</li> <li>Kirol taldeetako arduradunekin mintegiak (2015,16,19).</li> <li>Gazteak euskaldunak dira.</li> <li>Kirol taldeek entrenatzaileak hartzeko daukaten irizpideak aztertzea.</li> <li>Zumardia eta igeriketa kluba euskara eragileak dira.</li> <li>Kiroldegiko kontratuetako irizpideak aztertzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Euskara Sailean ez da gai hau behar bezala koordinatu.</li> <li>"Kirola Euskaraz" programa garatzeko saiakerak egin dira, baina ez da egonkortu.</li> <li>Federazioko formazioetan, sarritan, ez da euskara kontuan hartzen.</li> <li>Begiraleak/dinamizatzaileak/teknikariak lortzeko zailtasunak. Borondatez datorrenari hizkuntza eskakizuna ezartzeko zailtasuna. Aldaketa asko.</li> <li>Kirol klubetako eragile kopurua handia da eta asko euskaratik urrun daude.</li> <li>Bereziki futbol taldeetan, gaztelera da nagusi.</li> <li>Ez daukagu beste kirolen hizkuntzaren diagnostikorik.</li> </ul>
<b>EUSKARAREN ELIKADURA</b>	Liburugintza	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gaztelerazko liburuak gehiago mailegatzen dira.</li> <li>Galtzaundiren Irakurle Kluba.</li> <li>Irakurle taldeen artean, gazteena eta</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Euskara Sailean ez da gai hau behar bezala koordinatu (Liburutegia/Kultura).</li> <li>Liburutegiko Irakurle Kluba gazteleraz.</li> <li>Irakurle klubentzako harremanik ez.</li> </ul>

		helduena bereizi, zaletasuna indartzeko.	
	Kulturgintza	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bertso Eskola ikastetxeetan finantzatzeko udal dirulaguntza,.</li> <li>• Bertsozale Elkarteak, Harituzek, Galtzaundik eta herriko eragile ugari eskaintza oparoa egiten dute.</li> <li>• Galtzaundik dirulaguntzak eskatzen ditu: Irakurle Taldea, Sormenetik eta Sorkuntza Tailerra...</li> <li>• Euskarazko sorkuntza (beken bidez, lehiaketan bidez, Uxola saria...).</li> <li>• Euskarazko kultur emanaldien bilgune izango den gune bat sortu.</li> <li>• Tinko elkartearen bidez antolatzen den Euskara Zinema Aretotara programa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskara Sailean ez da gai hau behar bezala koordinatu (Kultura Saila).</li> <li>• Zineman hainbat film gazteleraz izaten da. Diagnostikorik? Kuotarik?</li> <li>• Ikastetxeetan bertso eskola dagoen arren, herri mailan ez dago bertso eskolarik.</li> </ul>
	Corpus Plangintza/kalitatea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Leku berrien izendapenak Euskara Sailarekin adosten dira.</li> <li>• Tolosako euskararen ahozko ondarearen interneteko funtsaren DVDak (Ahotsak.com).</li> <li>• Ahotsak.eus motako ekimenak</li> <li>• Bertako euskalkiarekin lotutako ikerketa lanak sustatu eta zabalkunde ematea.</li> </ul>	
	Hedabideak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ataria eta 28 kanalaren proiektuetarako</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskara Sailarekin ez da gauza handirik egin.</li> </ul>

		<p>dirulaguntzak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hitzarmenak eta adostutako kopuruak mantendu dira.</li> <li>• Azken urteetako lankidetzak eta elkarlana.</li> <li>• Egitasmoak bideratzeko gunea sortzeko urratsak eman dira, emaitza puntualak: inauteriak, Euskaraldia, Korrika...</li> <li>• Euskara Sailarekin gauza/ekintza gehiago lantzea: kanpainak (eskaintza/harpidetza, gehigarriak, egitasmo bereziak...).</li> <li>• Datorren urteetan saltoa egiteko aukera aztertu beharko litzateke.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udaletik ez da bultzatu euskarazko hedabideen eskaintzaren berri ematea eta harpidetzak egitea.</li> <li>• Atzerapena izan da urteko hitzarmenera itzultzea (arau administratiboak direla eta).</li> <li>• Komunikazio planik ez dago.</li> </ul>
	IKT	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskal Wikipedia, zabalkundea?</li> <li>• Euskarazko blogintza bultzatu, komunitatea egonkortu...</li> <li>• Gazte Topagunean Instagrama dago.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sailean egiten diren ekimenen/programen/zerbitzuen informazioak ez webgunean.</li> <li>• Udal webgunean euskarak presentzia murrizta.</li> </ul>

## ESEP 2022-2024

Ebaluazioan jasotako indargune, aukera, ahulgune eta mehatxuak kontuan hartuz, 2021eko uztailaren 2ko Euskararen Aholku Kontseiluan 2022-2024 bitarteko helburuak eta ekintzak proposatu ziren. 2021eko irailaren 3ko bileran, kontrastatu eta onartu egin ziren.

### PARTE HARTZAILEAK

- UDAL ORDEZKARIAK: Xabier Balerdi EAKren lehendakaria, eta Garbiñe Marzol EH Bilduko ordezkaria.
- UDAL LANGILEAK: Ziortza Sanz euskara teknikaria, Jexux Peñagarikano euskara normalizatzaileria, Maixabel Zubillaga udal euskaltegiko zuzendaria eta Bakarne Telleria Euskara Saileko administraria.
- ERAGILEAK: Galtzaundi Euskara Taldea, Tolosaldeko Ataria, Laskorain ikastola, Samaniego ikastetxea, Herrikide ikastetxea, Orixe BHI, Inmakulada Lanbide eskola, UEMA, Harituz Bertsozale Elkargunea eta Osakidetzako Tolosaldeko ESiko euskara teknikaria.



Bileretan, ahulezi, mehatxu, indargune eta aukeren araberako helburu estrategikoak, estrategiak eta ekintzak proposatu ziren.



ESPARRUA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	ESTRATEGIAK	EKINTZAK-PROGRAMAK
PLAN ESTRATEGIKOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Elkarlana, koordinazioa eta planen jarraipena eta komunikazioa egitea.</li> <li>Udal euskara planen jarraipena elkarlanean eta era koordinatuan lantzeko egitura finkatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>EAKren dinamika taldean adostea.</li> <li>EAKren zabalkundea egitea.</li> <li>EAK-ko ordezkarien prestakuntza lantzea.</li> <li>EAKren lidergoa ondo definitzea, eta funtzioak ondo betetzea.</li> <li>EAK-ko eragileen zaintza bermatzea.</li> <li>Herriko euskalgintza diruz laguntzeko hitzarmenak sinatzea.</li> <li>Tolosaldeko Euskara Teknikarien koordinazioa (TET).</li> <li>Eskualde ikuspegia lantzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>EAKren Komunikazio Plana egitea.</li> <li>EAK-kideontzako prestakuntza saioak antolatzea: Kontseilua, Topagunea, UEMA...</li> <li>Bileren egitura egonkortzea, funtzioak rolak eta parte hartzea egituratzea (organigrama: nork-zer...).</li> <li>Tokiko euskalgintzarekin hitzarmenak.</li> <li>TET taldean parte hartze aktiboa izatea.</li> <li>Hitzarmenen iraupenari eta laguntzen kopuruari irizpideen gardentasunari buruzko saioa.</li> <li>Tolosaldean diharduten elkarten lana aitortzea.</li> </ul>
FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Familietan euskararen erabilera, aldeko jarrera eta etxeko erabilera sustatzea.</li> <li>Familiek euskararen transmisioan duten funtzioaren kontzientzia sustatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Guraso berrien sentsibilizazioa lantzea.</li> <li>Sentsibilizazioa lantzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Guraso berriei sentsibilizazio materiala ematea.</li> <li>Ikastetxeekin elkarlanean gurasoen lanketak sustatzea.</li> <li>Euskarazko produktuen katalogoa sustatzea eta zabalitzea.</li> <li>2 urteko haurren gurasoen gaitasun datuak neurtzea (eskoletan), eta emaitzen arabera helburu/plana diseinatzea.</li> <li>2019an egin zen "Tolosako guraso euskaldunen hizkuntza ohiturak" azterlanaren ondorioak Kontseiluan lantzea eta neurriak aztertzea.</li> </ul>
IRAKASKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Euskara errefortzuak eta ahozko erabilera antolatzeko sustapena</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Dirulaguntzak eta aholkularitza ematea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Etorkinentzako errefortzuetarako dirulaguntzak ematea eta eskolen jarraipena egitea.</li> </ul>

	egitea.		<ul style="list-style-type: none"> <li>• 16 urtetik beherako batzuek daukaten euskararen errefortzu beharrianerako aukerak sortzea.</li> <li>• "Gu ere bertotan" programa diruz laguntzea.</li> </ul>
EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Oinarrizko hizkuntza maila eskuratzeko sustapena</li> <li>• Elkarlana eta koordinazioa</li> <li>• Euskara ikasteko laguntzak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berriazko ikastaroak antolatzea: zaintzaileak, merkatariak, etorkinak, gurasoak...</li> <li>• EAK, TET, Euskalduntze/alfabetatze koordinazio mahaian beharriari begirako jarduerak antolatzea.</li> <li>• Euskara ikasteagatik dirulaguntzak ematea.</li> <li>• Etorri berriei aukeren berri ematea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Peñascaleko AISA taldeekin jarraitzea, sozializatzea.</li> <li>• Inmakulada ikastetxean AISA martxan jartzeko aukerak aztertzea.</li> <li>• Gurasoei matrikulazio kanpainaren berri ematea.</li> <li>• Matrikulazio kanpaina bateratua egitea.</li> <li>• Tolosako ikasleentzako dirulaguntzen zabalkundea egitea.</li> <li>• Harrera gida bateratua egitea.</li> <li>• Euskaltegiko hasierako mailtako ikasle etorkinak harrerarako baliatzea.</li> <li>• Alfabetatu/Euskaldundutakoen sustapen ekintzak.</li> </ul>
ADMINISTRAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren jarraipena egitea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erabilera planaren kudeaketa planaren jarraipena egitea Kontseiluan.</li> <li>• Kontseilukideek planari ekarpenak egitea, hala badagokio.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• EAKren bileretan Erabilera Planaren jarraipena egingo da, egindako eta aurreikusitako ekintzen berri emanez.</li> </ul>
ARLO SOZIO-EKONOMIKOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Merkataritzako hizkuntza paisaia euskaratzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Galtzaundiren bidez lanketa egiten jarraitzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Karteldegia berritu eta erakargarriago egitea.</li> <li>• Harategi, fruta -denda eta arrandegiekin lanketa berezia egitea.</li> <li>• Kontsumitzaileak sentiberatzeko kanpaina egitea.</li> <li>• Euskara Sailaren zerbitzua/dirulaguntzak ostalari/saltokietan zabaltzen jarraitu.</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Saltoki, banketxe eta kate handietan euskara bermatzea eta ikusgarritasuna lantzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Egoeraren analisia egitea, harremanak lantzea, konpromisoak hartzea, ezartzea eta jarraipena egitea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Behaketa eta analisia egitea.</li> <li>• Urteroko jarraipena: bilerak eta lanketa, erraztasunak eta esku hartzea.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Enpresa arloa euskalduntzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herriko enpresak euskara planetara bideratu eta haiei lana erraztea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Laguntzak handitu eta sustatzea.</li> <li>• Garatzen-ekin batera gaia lantzea.</li> <li>• Enpresa arloan eragiteko estrategia orokorra garatzea.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• LHn euskara sustatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Praktika zein ikasketetan euskara bermatu eta lehenestea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Peñascaleko dinamika zabaltzea.</li> </ul>
AISIA ETA KIROLA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirol eta aisialdian euskararen erabilera handitzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirolean eta aisialdian euskara sustatzeko programa martxan jartzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erabileraren diagnostikoa egitea: entrenatzaileak hartzeko edo kiroldegiko kontratuetako irizpideak...</li> <li>• Jarduera plana diseinatzea (arloka hiztegia osatu eta zabaltzea, ezagunen hitzaldiak, dirulaguntzak...).</li> </ul>
ERABILERA NEURKETA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erabileraren neurketak egitea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kale neurketa egitea.</li> <li>• Patioetako neurketak egitea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Neurketen ondorioak gizarteratu eta emaitzen arabera estrategiak planifikatzea.</li> </ul>
LIBURUGINTZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakurzaletasuna sustatzea.</li> <li>• Euskaraz irakurtzen duten irakurle gehiago lortzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Baliabideen zabalkundea egitea (eskoletan, etxean...).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakurle taldeak eta liburuak adinaren arabera bereiztea.</li> <li>• Irakurle taldeen arteko koordinazioa lantzea.</li> <li>• Liburutegiarekin estrategiak garatzea.</li> </ul>
KULTURGINTZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskarazko kultur ekimenen erreferentzia sortzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskarazko kultur emanaldien bilgunea sortzeko aukerak aztertzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskarazko ekimenen bilgunea sortzeko beharizana aztertzea.</li> <li>• Ekintzak sailkatzea nori dagokion jakiteko, nori bideratu zehaztea.</li> <li>• Egiten diren ekintzen zabalkunde eta sustapena: Tinko elkartearen bidez</li> </ul>

			antolatzen den Euskara Zinema Aretoetara programa.
CORPUS, PLANGINTZA KALITATEA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Toponimia ondo erabiltzea.</li> <li>• Udal komunikazio hizkuntzaren kalitatea hobetzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Izen zaharrak eguneratzea, eta izendapen berriak Euskaratik pasatzea.</li> <li>• Udal komunikazioaren behaketa egitea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Plaken diagnostikoa eta zuzenketa egitea.</li> <li>• Udal komunikazioaren diagnostikoa eta beharrezan araberako proposamena egitea.</li> </ul>
HEDABIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskarazko hedabideak sustatzea.</li> <li>• Komunikazio plan eraginkorra egitea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tokiko hedabideak diruz laguntzea.</li> <li>• Elkarlana eta lankidetzaren mantendu eta indartzea.</li> <li>• Tolosaldeko koordinazioa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tolosako eragileekin hitzarmenak sinatzea.</li> <li>• Urteko komunikazio plana egitea, osatzea eta kronograma eratzea.</li> <li>• Tolosako Euskara Sailarekin gauza/ekintza gehiago lantzea (kanpainak (eskaintza/harpidetza, gehigarriak, egitasmo bereziak...)).</li> </ul>
INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK (IKT)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• IKTetan euskarazko sorkuntza eta erabilera handitzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sare sozialetan euskararen erabilera handitzea.</li> <li>• Euskarazko bideo jokoaren erabilera bultzatzea.</li> <li>• Euskarazko sorkuntza bultzatzea herritarren artean (Tolosapedia...).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehiaketa motibagarriak antolatzea.</li> <li>• Guraso eta gazteentzako prestakuntza: IKTen erabilera egokia, euskararen erabilera... (KZ gunea).</li> <li>• Euskal Wikipedia zabaltzea.</li> </ul>

## HELBURUAK LORTZEKO ZEHARLERROAK

- **EUSKARAREN ALDEKO SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA:**
  - Euskararen Eguna, Korrika...
- **EUSKARAREN ZABALKUNDEA**
  - **BARRUKO PROIEKZIOA:** Udal eta udalerriko eragile, erakunde eta sailekin aliantzak, kolaborazioa:
    - Gizarte Zerbitzuak: harrera gida, etorri berriekin lan egiten duten elkarteak...
    - Berdintasuna (Berdintasun Saila eta Berdintasun kontseiluarekiko elkarlana.
    - Kirola: aliantzak (Zumardia, Igeriketa kluba, Tolosa CF...).
    - Kultura: zinema kuota...
    - Merkataritza: Tolosa & Co, Azokagileak...
    - Turismoa: aliantzak (Tolosaldea Garatzen...).
  - **KANPOKO PROIEKZIOA:** Herriz kanpoko euskalgintzako erakundeak diruz laguntzea eta euren proiektuak sozializatzea:
    - Hitzarmenak: Euskararen Kontseilua, Garabide...
    - Dirulaguntzak: Herri Urrats, Nafarroa Oinez, Kilometroak, Korrika, Euskaraldia eta bestelakoak.
    - Komunikazioa: Komunikazio plana egitea eta Udalaren webguneko Euskara Sailaren orria eguneratzea.

## GENERO IRIZPIDEAK

- Dokumentazio, iragarki, irudi eta material guztietan hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatuko da.
- Emakumeen irudi diskriminatzaileak zein estereotipo sexistak ekidingo dira.
- Emakume eta gizonen presentzia orekatua eta anitza zainduko da, bereziki erabaki guneetan.
- Genero identitate eta rol anitzak zainduko dira.
- Euskara eta Berdintasun kontseiluen arteko aliantza sustatuko da, besteak beste, alor bietako irizpideen sentsibilizazio, kontzientziazio eta hausnarketarako elkargunea sortuz.
- Udal dirulaguntzen esleipenetan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako legean eta Tolosako udalaren dirulaguntza orokorrean jasotakoa beteko da.
- Euskararen erabilera neurketetan sexu aldagaia sistematikoki jasoko da eta datuen ustiaketa landuko da.
- Aurretiazko genero inpaktuaren ebaluaketa egingo da Berdintasun sailaren laguntzarekin.

## IKUSPEGI INTERSEKZIONALA

- Planaren ikuspegi interseksionalari buruzko hausnarketa egingo da Berdintasun Sailarekin batera.

## EKINTZEN KRONOGRAMA

ESPA RRUA	EKINTZAK	DENBORALIZAZIOA			KUDEATZAILEAK	AURREIKUSPEN EKONOMIKOA: Aurrekontu zehatzak urteroko planetan zehaztuko dira
		2022	2023	2024		
ESTRA TEGIA	EAKren funtzioak, rolak, parte hartzea egituratu (organigrama: nork, zer...)	✓	✓	✓	Kontseilua	Kontseilukideen dedikazioa
	EAKren Komunikazio Plana egin	✓			Kontseilua	Zehaztezina, urteko beharrianari eta dagokion urteko udal komunikazio esleipenari lotuta.
	EAK-kideontzako prestakuntza saiok antolatu (Kontseilua, Topagunea, UEMA...). Urtean bat.	✓	✓	✓	Kontseilua	Udalak erakundeekin daukan hitzarmenei lotuta
	Tokiko euskalgintzarekin hitzarmenak sinatu.	✓	✓	✓	Udala	Dagokion urteko udal dirulaguntzen plan estrategikoari lotuta
	Tolosaldeko Euskara Teknikarien bileran parte hartze aktiboa izan	✓	✓	✓	Udala	Teknikariaren dedikazioa
	Hitzarmenen iraupenari eta laguntzen kopuruen irizpideen gardentasunari buruzko saiok.	✓			Udala	Teknikariaren dedikazioa
TRANS MISIOA	Guraso berrien sentsibilizazioa (UEMAren materiala, Kuku gida?)	✓	✓	✓	UEMA	UEMA eta Udalaren arteko bazkidetza eta urteko planei lotuta
	Gurasoekin lanketak sustatu ikastetxeetan	✓	✓	✓	Kontseilua	Zehaztezina
	Euskarazko Produktuen Katalogoa sustatu	✓	✓	✓	Kontseilua	Zehaztezina
	Gurasoen gaitasun datuak neurtu, estrategiak aztertu, finkatu... (Ulibarri programaren 4 urteko plangintzarekin bateratu).	✓			UEMA	UEMA eta Udalaren arteko bazkidetza eta urteko planei lotuta
	2019ko gurasoen hizkuntza ohiturak landu, zabaldu.	✓			Kontseilua	Kontseilukideen dedikazioa

<b>IRAKAS KUNTZA</b>	Etorkinentzako errefortzuak: dirulaguntzak, jarraipena...	✓	✓	✓	Udala	Dagokion urteko udal dirulaguntzen plan estrategikoari lotuta
	Errefortzua: 16 urtetik beherako beharrezanean erantzuteko proposamenak		✓		Kontseilua	Zehaztezina
	"Gu ere bertsoan" programa diruz lagundu	✓	✓	✓	Udala	Dagokion urteko udal dirulaguntzen plan estrategikoari lotuta
<b>EUSKAL DUNTZE-ALFABE TATZEA</b>	Alfabetatu/euskaldundutakoek sustapen ekintzak	✓	✓	✓	Kontseilua	Zehaztezina
	Euskaltegi hasierako mailako ikasle etorkinak harrerarako baliatu		✓	✓	Aitzol Udal Euskaltegia	Kontseilukideen dedikazioa
	Harrera gida bateratua egin	✓			Kontseilua	Zehaztezina
	Tolosako ikasleentzako dirulaguntzen zabalkundea egin	✓	✓	✓	Udala	Dagokion urteko udal komunikazio esleipenari lotuta
	Matrikulazio kanpaina bateratua egin	✓	✓	✓	Aitzol Udal Euskaltegia	Euskaltegi langileen dedikazioa
	Gurasoei matrikulazio kanpainaren berri eman	✓	✓	✓	Tolosaldeko Euskara Teknikariak	TET -en dedikazioa
	Inmakulada ikastetxean AISA martxan jartzeko aukerak aztertu	✓			Aitzol UE eta Inmakulada	Langileen dedikazioa
	Peñascaleko AISA taldeekin jarraitu, sozializatu	✓	✓	✓	Aitzol Udal Euskaltegia	HABE ren dirulaguntzari lotuta
<b>SOZIO-EKONOMIKOA</b>	Euskara Sailaren zerbitzua/dirulaguntzak ostalari/saltokietan zabaltzen jarraitu	✓	✓	✓	Udala Galtzaundi	Euskara Saileko teknikariek dedikazioa eta Galtzaundiren hitzarmenari lotuta
	Kontsumitzaileak sentiberatzeko kanpaina egin		✓	✓	Kontseilua	Zehaztezina
	Harategi, fruta-denda eta arrandegiekin lanketa berezia egin	✓	✓	✓	Udala, UEMA eta Galtzaundi	Galtzaundiren hitzarmenari eta UEMAren bazkidatzari lotuta
	Karteldegia berri eta erakargarriago egin		✓	✓	UEMA	UEMAren bazkidatzari lotuta

	Saltoki, banketxe eta kate handietan behaketa eta analisia egin	✓	✓	✓	UEMA	UEMAren bazkidatzari lotuta
	Enpresa arloan eragiteko estrategia orokorra garatu		✓	✓	Kontseilua	Zehaztezina
	Enpresa planak egiteko laguntzak handitu eta sustatu		✓	✓	Udala	Dagokion urteko udal dirulaguntzen plan estrategikoari lotuta
	LHn Peñascaleko dinamika zabaldu	✓	✓	✓	Kontseilua	Zehaztezina
<b>ADMINISTRAZIOA</b>	Kontseiluan Udal Erabilera Planaren jarraipena egin	✓	✓	✓	Udala UEMA	Teknikariaren dedikazioa eta UEMAren bazkidetzari lotuta
<b>AISIA ETA KIROLA</b>	Berritzeguneak Tolosaldeko ikastetxeen laguntzarekin egindako ikerketa Kontseiluan landu (Xabier Bengoetxeak egindakoa).	✓			Kontseilua	Kontseilukideen dedikazioa
	Erabileraren diagnostikoa egin: entrenatzaileak hartzeko edo kiroldegiko kontratu etako irizpideak zehazteko		✓		Galtzaundi Udala	Galtzaundiren hitzarmenari lotuta
	Jarduera plana diseinatu (arloka hiztegia osatu eta zabaldu, ezagunen hitzaldiak, dirulaguntzak...)			✓	Galtzaundi Udala	Galtzaundiren hitzarmenari lotuta
<b>ERABILERAREN NEURKETA</b>	Neurketen ondorioak gizarteratu eta emaitzen araberako estrategiak planifikatu	✓	✓	✓	Kontseilua	Zehaztezina
<b>LIBURUGINTZA</b>	Liburutegiarekin estrategiak garatu: irakurle taldeen arteko koordinazioa, ikasle eta gurasoen artean liburutegiaren erabilera sustatu, gurasoentzako gomendioak...			✓	Udala	Teknikariaren dedikazioa
	Irakurle taldeak eta liburuak adinaren arabera bereizi		✓		Udala	Teknikariaren dedikazioa
<b>KULTUR GINTZA</b>	Euskarazko ekimenen bilgunea sortzeko beharrezina aztertu			✓	Kontseilua	Kontseilukideen dedikazioa



	Tinko elkartearen bidez antolatzen den Euskara Zinema Aretoetara programa.	✓	✓	✓	Udala	Leidorren erabilera
	Ekintzak sailkatu, nori dagozkion jakiteko, nori bideratu zehaztu			✓	?	?
<b>CORPUS - KALI TATEA</b>	Toponimia: plaken diagnostikoa eta zuzenketa egin	Udal Erabilera Plana				
	Udal komunikazioaren diagnostikoa eta beharizanen arabeko proposamena egin	Udal Erabilera Plana				
<b>HEDA BIDEAK</b>	Urteko komunikazio plana egin, osatu, eta kronograma eratu	✓	✓	✓	Kontseilua	Zehaztezina, dagokion urteko udal komunikazio esleipenari lotuta
	Tolosako Euskara Sailarekin gauza/ekintza gehiago landu (kanpainak (eskaintza/harpidetza, gehigarriak, egitasmo bereziak...)).	✓	✓	✓	Udala Tokiko Hedabideak	Zehaztezina, dagokion urteko udal komunikazio esleipenari lotuta
<b>IKTak</b>	Guraso eta gazteentzako prestakuntza: IKTen erabilera egokia, euskararen erabilera... (KZ gunearekin elkarlanean)		✓	✓	Kontseilua	Zehaztezina
	Gazteen artean ikus-entzunezko kontsumoa aztertzeke gai ezberdinak lantzen dituen "Ikusiker" ikerketa Kontseiluan landu.		✓		Kontseilua	Kontseilukideen dedikazioa
	Euskal Wikipediaren zabalkundea	Tolosaldepedia-Kultura Saila				
<b>ZE HAR LERROAK</b>	Euskararen Eguna, Euskaraldia, Korrika... antolatu	✓	✓	✓	Kontseilua	Dagokion urteko udal dirulaguntzen plan estrategikoari lotuta
	Udal eta udalerriko eragile, erakunde eta sailekiko aliantzak, kolaborazioa sustatu	✓			Kontseilua Udala	Kontseilukideen eta udalaren dedikazioa
	Herriz kanpoko euskalgintzako erakundeak diruz lagundu eta sozializatu: Korrika, Herri Urrats, Nafarroa Oinez, Kilometroak, Garabide eta Kontseilua	✓	✓	✓	Udala	Dagokion urteko udal dirulaguntzen plan estrategikoari lotuta

